

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko abenduaren 13a. VIII. urtea. 2.323. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



I. GARCIA

→ **Kirola eta elkartasuna, eskutik.** Urte Zahar egunerako, beste behin, Elkartasun Krosa antolatu dute. Hamalaugarren aldia izango da aurtengoa, eta ekimenaren bultzatzaileek azaldu dutenez, urtero arrakasta handituz doa. Samaniego eskolak eta Orixe Institutuak antolatzen dute, Tolosako Udalaren laguntzaz, eta krosean biltzen den dirua Koku-Yo elkartearen bitartez Kolonbiara bideratzen dute. **03**

## Ikastolako gazteek apainduko dituzte Ibarako kaleak

Eguberri kanpainaren barruan, energia kontsumoa eta argi-kutsadura gutxitzeko argi gutxiago izango dira aurten; merkatariek txartelak banatuko dituzte bezeroen artean **02**



Udaleko, ikastolako eta merkatariek elkarteak. R. CALVO

## Binakako txapelketa «oso esperientzia polita» izan da Aizpuruarentzat

Erremontista tolosarrak, Ezkurrarekin batera, Juaristi eta Lizasoren aurka galdu du finalurrekoan **07**

Zatoz **HITZA**ko bulegora zure mahai egutegiaren bila!

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

Ertausketa zero tratu bermia martxan!  
Ertausketa lane propioarekin.



Trianguloan bildu ziren, atzo eguerdian. E.MAIZ

## Preso eta iheslariak etxeratzeko eskatu du LAB sindikatuak

Elkarretaratzea egin du Tolosan eta Leitzan; «salbuespeneko kartzela politika larriki gogortu dela» salatu du

R.C. Tolosa

LAB sindikatuak deituta euskal preso eta iheslarien etxeratzeko eskatzeko elkarretaratzeak egin zituzten atzo, Tolosako Trianguloa plazan, eta Leitzan.

*Euskal preso eta iheslari politikak etxera!* lelopean indarrean dagoen espetxe politika salatu zuten, eta «20 urte baino gehiago irauten duen sakabanaketa, isolamendua, etengabeko xantaia, *de facto* aplikatzen zaien bizi osorako zigorra...», ekarri zituzten gogora. «Salbuespeneko kartzela politika hau, gainera, azken urteotan larriki gogortuz joan da, euskal preso politikoen kontra espresuki sortutako hainbat neurri eta dotrinen bitartez», gaineratu zuten.

Era berean, espetxe politika «errepresioan eta mendekuan oinarritzeaz gain, Estatuek gatazka politikorako baldintzatze-tresna gisa» erabiltzen dutela azaldu

zuten. «Politika berezia izaera politikoa daukan kolektibo baten kontra. Politika kriminal honek lehen ez zeukan lekurik, baina gure herrian zabaldu den garai berri honetan are gutxiago. Preso eta iheslari politikoen existentzia hutsa gatazka politikoaren ondorioa da, eta Estatuek espetxe politika honi eustea ikaragarritzko oztopoa da konponbide prozesurako», gaineratu zuten.

### «Estatuen urratsak»

LAB sindikatuaren hitzetan, Estatuei dagokie orain urratsak egitea, baina urrats horiek egitera behartzea gizarte guztiaren erantzukizuna dela nabarmendu zuten.

Zentzu honetan, urtarrilaren 7an Bilbon egingo den manifestazioa joateko deia egin zuten atzo: «Bilboko kaleak bete behar ditugu espetxeak husteko. Urtarrilaren 7an, ez ahaztu, ez da beste manifestazio bat, baizik eta euskal preso eta iheslari politikak etxeratzeko bidean mugarririk. Kolektibo oso baten borrokarekin bat egin eta Euskal Herriko kaleetatik aldarria zabaldu, berriro Euskal Herriko kaleetan izan ditzagun. Kolosala izan behar da. Kolosala izango da», azaldu zuten.

## Eguberrietan energia kontsumoa gutxitzeko helburua du Ibarako Udalak

Argidun apaingarriak Euskal Herria kalean, San Inazio auzoan eta plazan bakarrik jarriko dituzte

Rebeka Calvo Ibarra

Ibarako Udalak helburu argia du ate joka dauden Eguberrietarako: «Energia kontsumoan aurreratu eta argi-kutsadura murriztea». Ez dute herria apaingarririk utzi nahi, baina orain arteko eredu aldatu beharrean izan dira, horrela «bizi dugun krisi egoera honetan eredu» izateko, Itziar Saizar Merkataritza, Ingurumen eta Nekazaritza zinegotziak argitu zuzenez.

Gabonetan argindarraren kontsumoa %20 handitzen da, baina udalarentzat apaintzea ez da bakarrik argindarra duten apaingarriak jartzea, eta horregatik herriko kaleetan Uzturpe ikastolako ikasleek egindako argi gabeko apaingarriak jarriko dituzte. Eskulanak egiteko birziklatutako materiala erabili dute Agenda 21 proiektuarekin bat eginaz. «Ikastolako udalaren proposamena onartu eta ikasle bakoitzak argirik behar ez duten apaingarriak sortzeko ardura hartu du. Horrela, hondakin gisa amaituko zutenari bigarren bizitza bat emanez, berrerabilgarria den materialarekin Gabonetako apaingarriak egin dituzte», argitu zuen Saizarrek.

Horiek horrela, eta udalak «herriko merkataritza eta ostalaritza indartu eta bultzatzeko» duen konpromisoari jarraiki, merkataritza gehien duten inguruak, Eus-



Uzturpeko ikasleek egindako apaingarrietako batzuk. R.C.

kal Herria kalea, San Inazio auzoa eta plaza, argizatuko dituzte, eta gainontzeko tokietan gazte-txoek egindako apaingarriak jarriko dituzte. Guztira 360 eskulan baino gehiago jarriko dituzte, aurreko urteetan jartzen ziren 70 irudiak ordezkatuz.

Era berean, argiak egun gutxiagotan eta denbora gutxiagotan piztuko dituzte. Hilaren 20an piztuko dituzte argiak, eta urtarrilaren 7an itzali. Iaz baino 3 egun gutxiago, hortaz. Era berean, 23:00etan itzali beharrean, aurtun 21:30erako itzaliko dituzte argiak.

### Merkatariek ere herria giroten

Apaingarriak aurkeztearekin batera, atzoko agerraldian Ibarako Merkataritza Elkarteak hainbat kide izan ziren, Eguberriek begira antolatutako zozketa aurkezteko. Antxon Urrestarazu lehendakariak hitz egin zuen, eta honek «herria girotzeko eta merkataritza sustatzeko» kanpaina xume bat antolatu dutela azaldu zuen.

Kanpaina honen barruan, hilaren 13tik aurrera herriko saltokietan txartelak banatuko dituzte bezeroen artean, eta urtarrilaren 9an zozketa egin eta hiru irabazle aterako dira. Batek 300 euro eskuratuko ditu, beste batek 200, eta hirugarrenak 100 euro. Irabazleen izenak urtarrilaren 9an bertan jarriko dituzte dendetako atean.

Urrestarazuk azaldukoaren arabera, egun 40 bat bazkide ditu elkarteak, baina taldea handitzeko nahia dute etorkizunera begira. «Herriko beste enpresei ere elkarrean parte hartzea animatu nahi ditugu, izena eman dezaten herria bultzatzeko, eta gure enpresak bultzatzeko», azaldu zuen Urrestarazuk.



Udalako eta Uzturpe ikastolako arduradunak, merkataritza elkarteak hainbat kideekin batera. R.C.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Korrika eginez elkartasunari beste bultzada bat emateko aukera

Urte Zahar egunean egiten den Elkartasun Krosa aurkeztu zuten atzo; urtero parte hartzea handituz doa

**Imanol Garcia** Tolosa

Tolosako XIV. Elkartasun Krosaren aurkezpenean egin zuten, atzo, udaletxeko batzar aretoan. Ohi bezala, abenduaren 31n egingo da, Urte Zahar egunean. Aurkezpenean Pello Etxabe kirol zinegotziak, Iban Gallego Samaniego eskolako eta Orixe institutuko kirol arduraduna eta krosaren koordinatzaileak, eta Lucia Arias Koku-Yo elkartearen ordezkariak hitz egin zuten. Urtero parte hartzea handituz doa eta aurten ere jende ugari bertan izatea espero dute. Lehengo urtean, helduak eta haurrak batuta, 800dik gora lasterkerik agurtu zuten urtea korrika.

Aurten berritasun batekin dator Krosa, kirol arloari dagokionez. Iban Gallegok zehaztu zuenez, «zirkuitua finkatuta dagoela ikusita, pentsatu dugu helduen lasterketan denbora guztiak jasotzea». Denbora horiek, proba bukatu eta hortik bi egunetara ikusgai egongo dira [www.herrikrosa.com](http://www.herrikrosa.com) helbidean.

Etxabek udalaren prestutasuna adierazi zuen krosari laguntza eskaintzeko: «Ekonomikoki ez dira garai onak, baina udalak orain arte emandako laguntza eskaintzeko prest dago, bai eskura



Lucia Arias, Pello Etxabe eta Iban Gallego, atzo egindako aurkezpenean. I. GARCIA

dituen baliabideak emanez, bai diru laguntza eskainiz». Krosaren helburua nabarmendu zuen zinegotziak: «Elkartasunak beti du garrantzia, baina garai hauean are garrantzitsuagoa iruditzen zaigu. Beraz, postuak eta kronometroak alde batera utziz, deialdia zabaltzen diogu Tolosaldeko gazte nahiz helduei Elkartasun Kros honetan parte hartzeri».

## Izen ematea, bihurtik zabalik

Hasiera eta helmuga Zerkausian izango du, eta distantzia eta ibilbideak berdin jarraituko du. Or-

dutegiak ere urterokoak izango dira: 15:30ean hasiko dira haurrak eta 16:30ean helduak. Izena aurretik eman daiteke, hilaren 14tik 29ra. Aralar Kirolak denda, eta helduek 6 euro ordaindu beharko dituzte. Egunean bertan, Zerkausian eman daiteke izena, proba hasi baino ordu erdi lehenago, eta orduan 10 euro ordaindu beharko dira. Haurrek ez dute izena ematerakoan ordaindu beharrik.

Lasterketa bukatzerakoan, parte hartzaileen artean afari batzuk zozketatuko dira. Afari batzuk bi lagunentzako dira eta bes-

te batzuk lau lagunentzat. Azken honetan, hau da, lau lagunentzako afarirako zozketan parte hartzeko, launaka eman behar da izena. Gallegok taldeka izena emateko gonbitea luzatu zuen, «beti ere aukera gehiago daude saria jasotzeko».

Urtero sari berezia ematen dute Samaniego edo Orixen ikasle izan den eta kirolean nabarmendu denari. Aurtengoan Maddi Amiano judokari egingo diote errekonozimendua. Bestalde, Gallegok Unai Arroyoren partehartzea nabarmendu zuen. Azken bi urteotan irabazlea izan da

## ↓ Egitaraua

- **15:30.** Benjaminak hasiko dira (LH3 eta LH4). 700 metro egingo dituzte.
- **16:00.** Alebinak hasiko dira (LH5 eta LH6). 1.600 metro egingo dituzte.
- **16:30.** Infantilak (DBH1 eta DBH2), 2.900 metro, eta helduak, 5.050 metro, aterako dira.

Tolosako atleta gaztea eta asteburu honetan parte hartu berri du Eslovenian jokatu den Europako Kros Txapelketan, junior mailan.

## Eskola berreraikitzea

Lucia Arias Koku-Yo elkartasun elkartearen ordezkariak, bere aldetik, egun dituzten proiektuen berri eman zuen, zehazki Kolonbian dutena. Hain justu, Samaniego eskola Guillermo Leon Valencia eskolaren senidetuta dago 2006 urtetik. Eskola hori Campo Alegre komunitatean dago, Ginebra udalerrian, Kolonbiako Cauca bailaran. Eskola horretarako dagoen Bibliomula proiektuaren zantz eman izan da Elkartasun Krosaren bildutako dirua.

Campo Alegre komunitatean orain urtebete lur jausi bat izan zen. Bost familia etxebizitzarik gabe geratu ziren, eta eskolaren eraikina oso egoera arriskutsuan dago. «Urte guzti honetan haurrek ezin izan dute eskolan izan», azaldu zuen Ariasek. «Aste honetan esan didate eskola guzti berreraiki behar dutela, eta beraz, egungo indarrak lan horretan jarriko dira. Hango alkateak esan duenez, datorren urtean eskola egongo da. Ea hori egi bihurtzen den». Bide batez, Krosaren antolakuntzari eskerrak eman zien Ariasek, jasotako laguntzarengatik.

# Dantza Aste betea antolatu du Oinkari taldeak

Gaur hasiko da, 'Ari du' Oinkariren azken lanaren DVD aurkeztuz, eta larunbata arte luzatuko da egitaraua

**I. Garcia** Amasa-Villabona

Gaur hasi eta larunbata arte, ekitaldiz beteriko Dantza Astea antolatu du Oinkari taldeak, Amasa-Villabonako Udalaren laguntzarekin. Oinkariren azken lanaren DVD aurkezpenean, ikastaroak, kontzertuek, eta noski, dantza emanaldiak osatuko dute egitaraua.

Lehenengo ekitaldia, esan bezala, gaur izango da, 19:30ean, Gurea aretoan. Bertan Oinkari dantza taldeak bere azken lanaren in-

guruaren egindako DVDa aurkeztuko du. Aurkezpenean parte hartuko dute Alazne Gurrutxagak, Juan Kruz Igerabidek, Edu Murumendiarenak, Garazi Esnaolak eta Agus Barandiaranek.

Biharkorako ikastaroa antolatu dute, Euskal Herriko rock musikaren inguruan, hain justu. 19:30ean izango da, Gurea aretoan, eta sarrera doan izango da. Bertan hitz egingo dute Xabi Solanok eta Zigor DZk, Esne Beltza taldekoak, eta Ritxi Aizpuru Baga-Biga musika editoreak.

## Kontzertuak

Ostegunean eta ostiralean kontzertu bana izango dira, biak Gurea aretoan. Ostegunekoak, Aroznatarren Ttunttuna izenekoa, txistu, perkusio eta gitarra emanaldia izango da. 19:30ean hasiko

da eta sarrera doan izango da. Ostiralean, Kherau taldearen txandak izango da. 22:30ean hasiko da eta sarrera aurretik erosi daiteke, 5 eurotan, Amasa kafetegian. Egunean bertan, Gurea aretoko leihatilan, 6 euro balioko ditu sarrerak.

Larunbatean, hilak 17, bi ekitaldi izango dira. Alde batetik, Gurea aretoan egingo dena, 17:00etan hasita. Bideo proiektioa egingo da, aurtengo Santio jaietan Oinkari dantza eskolak egindako dantza saioarena. Sarrera doan izango da. Beste ekital-

dia Olaederra kiroldegian egingo da eta 22:30ean hasiko da. Oinkari dantza taldeak *Ari du* ikuskizun berriaren emanaldia eskainiko du. Sarrerak aurretik erosi daitezke, Amasa kafetegian, 6 eurotan. Egunean bertan, leihatilan, 8 eurotan salduko dira.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garaia, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuek, deitu 678 267657 telefono zenbakira.

### GALDUTAKOAK

■ **Betaurrekoak.** Pasa den astelehenean, Belauntzako bidean, betaurreko batzuk galdu zituen norbaitek. Txikiak eta finak dira, obalatuak, eta kristalen inguruan monturarik gabekoak; emakumezkoenak dirudite. Metal-gris koloreko kaxa baten

barruan daude. Galdu dituenak, dei dezala 943 670492 telefono zenbakira.

### ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Tolosan etxebizitza alokatzen da. Interesatuek deitu 635 706 843 telefono zenbakira.

Alegria



LORETO ARAMENDIREN KONTZERTUA

Alegriako Urdazken Kulturala azken ondamera iristen ari da. Azaroko lehen egunetatik, ekitaldi zabeteak asteak izan dituzte alegiariek. Azkenetarikoa, Loreto Aramendiren kontzertua izan zuten. Loreto Aramendiren kontzertua entzuteko aukera izan zuten elizan, Bukatzeko, eta hilaren 20a bitartean, SOS Racismoko erakusketan. Erakusketan, etorkina eta bolalaguna izango da. [SOS SOS](#)

Tolosa



OLENTZERO IRITSI AURREKOAK

Gaietan ditugu Egunerik, eta bikiak dakizkizue Olenzero etortzeko egunak kontzertu ari dira. Olenzero eta Iribarren Jauntxoak filmaren musikaz gozatzeko aukera izan zuten kultur etxean. Olenzero oraindik mendian dabil, baina Tolosan izan ziren Mari Domingi, Mari Teletako eta Iribarren bere ere. Iribarren adierazten zuten, baina musika doinuak hastean, Euskal Herriko mitologia ezagutzaz gain. [BERNIZ 102](#)

Tolosa



MUNDUKO IPUINAK

Atzotik eta ostirala bitartean, Tolosa Hiru Liburutegian Babel munduko ipuinak, munduko kultur erakusketak egongo da ikusgai. 17:00etatik 20:00etara izango ditu atak zabalik. Bertan, Euskal Herriaz gain, munduko lurraldeak ezagutzeko aukera ematen du. Inuen bidet, Senagal, Txina, Angola, Kolombia, Bolivia edo Errusiako kulturak ezagutzeko aukera dago. [102](#)

Ibarra



UZTURREN ERE JAIOTZA

Bartolo Tolosa urtero bezala Uzture-Belebiatiko bidan jaiotza jai du. Belebiatiko aldean, hain baten azpian jaiotzen du, eta 18 urte darमतत «ilusio handiz» bertan jartzen. Ostiralean ipini zuten bere familiarekin batera. Jaiotzaren azpian, «Egunerri ona eta urte berri zioritasua denontzat» dioten kartela jarri du. [102](#)

Leitza eraikitzen jarraitu nahi dutela eta, «bakean uzteko» eskatu dute

Igandean manifestazioa egin zuten: «Gure herria eraikitzen jarraituz, pakean utzi Leitza» lelopean 120 lagun elkartu ziren

aldatzen ari den egoera politikoa eragitea, urratsak ematea galarazi»  
«Gure herri izateaz harro gaudelako, elkartasuna ez delako delitua eta egoera berri honetara konponbidera eramango gaituzela sinesten dugulako, trabak jarritzen ari diren guzti horiei gu

bakean uzteko eta beraien helburua ez dutela lortuko ozen esatuko, antolatutako diren ekimenetan parte hartzeraz da egiten dugudiot.

Atzo bertan, Espainiako Auzitegi Nazionalak eskatuta, herriko beste bi gazte deituak izan ziren Iruñeko epaitegira, eta



Azken urteetako errosoak salatzeko egin zuten elkarretarataz jende asko elkartu zen. [102](#)

Euskararen Legeak, etzi 25 urte

Ostegunean Nafarroako Euskararen Legeak 25 urte beteko ditu, legea salatzeko elkarretaratzea egingo dute, 20:00etan

teoa du behar. Lege honek ez du euskaraz hitzatzeko eskubidea ezarri.

Hori dela eta, ostegunean, 20:00etan, elkarretaratazea egingo dute. Legearen aurka, Euskaraz hitzatzeko eskubidea ezarri duen legea salatzeko elkarretaratzea egingo dute, 20:00etan

Hilaren 15ean, ostegunean, 25 urte beteko ditu Nafarroa Garaiko Euskararen Legeak. Euskal Herriko Euskararen Legeak, «eskubideen zati batetik, eta euskararen normalizazioa baino berri eskid-

den beste herrietan ere

EHK garbi adierazi nahi du «Euskararen Legeak, eta atzian duden hizkuntza politikak, aldeko auzoa behar du, errotasun» Euskararen Legea, «inbarren duden besteak hizkuntza politikak menderatzea eta errotasunarekin

batera, euskaltzain hizkuntza eskubideen urratzea da», gaineratu dute.

Egunero egoeran, «euskaltzainok bigarren mailako herritar izaten jarraituko dugu. Ez dugu euskaraz hitzatzeko eskubiderik izango. Euskarak lehenetsia behar du bere herrian, bizi irauterako bidea, eta lehenetsia, ofizialtasunaren eta herritarrok bertatik bertara erabakitako hizkuntza politikak burujabearen bidetik baino ez da etorkin», azpimarratu dute.

o leiztaldea@hitza.info

**PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK**

P-5008

TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZEJONARIAN  
San Esteban auzoa, 14-4 • 20400 TOLOSA • Tel: 943 650 337 / Fax: 943 652 938 • [itxoa@tolosa.redpeugeot.com](mailto:itxoa@tolosa.redpeugeot.com)

Zatuz **hitza**ren egoitzara gure **arropa berriak probatzera**

Helduentzako **Jertzea: 29,5€**

Kolorea: 100% Otsoa eta 100% lana  
Gizonek: 100% lana  
Emakumeak: 100% lana  
100% lana

**hitza**  
Arabá Etorbidea, 5 behean (Tolosa) • Tel: 943-65 96 95

**Egin HITZaren harpidedun abenduaren 31 baino lehen, eta jaso**

**MAHALA** egoizlearen **produktu sorta** hau **OPARI**

**Bertako informazioari, bertako produktuak**

Harreman-tarako: 902-82 02 01 [harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)

**Kirolak**

↓ **Kirol emaitzak**

**PILOTA**

**ERREMONTA**  
**Binakako Txapelketa**  
**Finalerdietako hirugarren**  
**partida**  
 Ezkurra-Aizpurua 31  
 Juaristi-Lizaso 40

**ARETO FUTBOLA**

**BIGARREN B MAILA**  
 Bajo Aragon Caspe 10  
 Laskorain 2

**HIRUGARREN MAILA**

**12. jardunaldia**  
**Egintza-Sasikoa** 3-3  
**Ibarra-Soloarte** 2-0

**Sailkapena**

**1. Ibarra** 30 p.  
**2. Sestao** 27 p.  
**3. Aurrera Vitoria** 22 p.  
**12. Egintza Transportes**  
**Lakuntza** 12 p.

**EUSKAL LIGA**

**12. jardunaldia**  
**Hirukide-Isu Leihoak** 2-3  
**Eskolapioak-Tolargi** 1-5

**Sailkapena**

**1. Tolosala Hirukide** 30 p.  
**2. Tolargi** 25 p.  
**3. Mamarigako FS** 24 p.  
**9. Eskolapioak** 12 p.

**FUTBOLA**

**ERREGIONAL OHOREZKOA**  
**14. jardunaldia**  
**Urola-Tolosa** 0-4

**Sailkapena**

**1. Anaitasuna** 32 p.  
**2. Berio** 28 p.  
**3. Oiartzun** 27 p.  
**4. Tolosa** 25 p.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

**13. jardunaldia**  
**Lehen taldea**  
**Tolosa B- Munibe** 2-3

**Sailkapena**

**1. Touring** 31 p.  
**2. Ostarar** 31 p.  
**3. Tolosa B** 26 p.

**Bigarren taldea**

**Orioko-Intxurre** 2-0

**Sailkapena**

**1. Soraluze** 26 p.  
**2. Lagun Onak** 23 p.  
**16. Intxurre** 8 p.

**SASKIBALOA**

**10. Jardunaldia**  
**La Alcohlera-Cenicero** 46  
**Bidebide Ibiza** 64

**Sailkapena**

**1. Bidebide Ibiza** 8-2  
**2. Goierri-Verkol** 7-3  
**3. Sekyes** 7-3  
**4. C. B. Sarturtzi** 6-4

**MENDI DUATLOIA**

**SOLSONAKO III. MENDI**  
**DUATLOIA**  
**1. Jon Erguin** 01:29:07  
**6. Luis Mari Urizar** 01:32:44

# Urizar beteranoetan garaile Solsonako Mendi Duatloian

Tolosaldea Triatloi Taldeko Liher Etxeberrria 35. postuan sailkatu zen, 1:40:52ko denborarekin

**Itzea Urkizu** Villabona

Luis Mari Urizar billabonatarrek beteranoen mailan denborarik onena lortu zuen, pasa den igandean joatu zen Solsonako (Katalunia) Mendi Duatloian.

Kataluniako zirkuiturako puntuagarria da Solsonako proba, eta Euskal Herritik hamaika kirola-

rik parte hartu zuten. Batzuk Euskal Selektzioko elastikoarekin aritu ziren, eta beste batzuk, berriz, beren klubeko elastikoarekin. Eskualdetik, Luis Mari Uri-

## Sailkapen orokorreko seigarren postua lortu zuen Luis Mari Urizar billabonatarrek

zar joan zen euskal selektzioko elastikoarekin; Liher Etxeberrria, berriz, Tolosaldea Triatloi Taldearen izenean aritu zen Solsonan.

Guztira 250 gizon-emakumek parte hartu zuten proban. Korri-

kako lehen zatian 5 kilometro egin behar izan zituzten; ondoren, bizikletarekin, 24 kilometroko ibilbidea egin zuten, eta bukatzeko 3 kilometro egin behar izan zituzten korrika.

Luis Mari Urizar eskualdeko lehena izan zen proban, 01:32:44ko denborarekin, eta seigarren postuan amaitu zuen proba. Bide beretik, beteranoen mailako irabazlea izan zen kirolari billabonatarra.

Tolosaldea Triatloi Taldeko Liher Etxeberrria, berriz, 35. postuan amaitu zuen Solsonako Mendi Duatloia, 01:40:52ko denbora eginez.



Euskal Herriko hainbat ordezkari izan ziren Solsonan. HITZA

# 10-2ko emaitzarekin itzuli zen Laskorain Caspetik

Bigarren zatian talde tolosarrak amore man zuen, eta ezin izan zion norgehiagokari buelta eman

**Iñaki Egizabal** Tolosa

Denboraldiko neurketarik kaskarrana jokatu zuen Laskorainek, pasa den asteburuan, Caspen (Espainia). Erdi aro hondarrean Aragoiko koroaren bilakaeran giltza-

ri bilakatu zen hiriak, ez zion ezer onik ekarri talde horitxoari, eta inolako eztabaidarik onartzen ez duen porrota jaso zuen. Aski esanguratsua da 10-2ko azken emaitza.

Epaileak txilibituari eragin orduko sortu ziren oztopoak, ikastolakoentzat. Etxekoek partidaren agintea errazegi hartu zuten, eta maila altuko areto futbola jostiaz, estu eta larri ipini zituzten tolosarrak, bereahala 2-0 aurreratu. Falta estrategian Telleriak sareraturutako golak, itxaropena

piztu zuen instant batez, baina ez zuen partidaren garapena aldatu, atsedendaldirako 4-1koa baitzen aldea.

Ondoren, bigarren zati oso-osoa, minutu txarrak jokatu zituzten tamalez, denboraldian estrainekoz laskoraindarrek amore eman baitzuten ezintasunaz etsita. Caspekoei aldiz, dena irtetzen zitzairen, eta errukirik gabe zulatatu zuten Endikaren atea.

Azken minutuan egin zuen Laskorainek markagailua batere aldatu ez zuen bigarrena; baina

aipamenak merezi du, aurtengo denboraldian debutari den Xabi Diezek sinatu baitzuen, Laskorainen historiako golegileen zerrendan bere izena idatziaz. Lesio batetik osatu berritan, bere bigarren partidaren gola sartu du aurreneko; ez dago batere gaizki, beraz.

Porrot mingarri honetaz haratago, azken jardunaldiak aintzatzat hartuta, laskoraindarrek 2. B maila berriaren zorrotzatsuna pairatzen ari direla esan daiteke. Honek, ordea, ez luke inor nekatu

behar, ederki baikenekien aurrez, txapelketaren maila zein den; hortxe dago lehen jardunaldietan pilotutako puntu sorta oparoa, baikortasun eta motibazio iturri.

Larunbat gauean, Tomas Roncerori geratu zitzaion antzeko aurpegiarekin egin zuten Caspetik Tolosarako ibilbide luze bezain astuna, Javi delegatuak, Javi eta Aitor entrenatzaileek eta Aratz, Telleria, Gil, Loitzun, Murgi, Otxoa, Txiki, Zubillaga, Etxeberria, Diez eta Endika jokalariek.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare bat** du

Abenduak 17 · Larunbata  
 20:00etan  
 Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
**Fuenlabrada**  
 saskibaloia partida

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



# Ceniceron irabazi ondoren, lehen postuan da Bide Bide

46-64ko emaitza lortu zuten tolosarrek, partida hasieran erritmoa hartzea kostatzen zaien arren

**I. Urkizu** Tolosa

Pasa den asteburuarekin, zor-zigarren garaipena lortu du Bide Bide Ibiza saskibaloitza. 46-64 gailendu zitzaion Ceniceroko (Espainia) La Alcohola taldeari, eta sailkapeneko lehenengo postuan da talde tolosarra.

Taldea beldur puntu batekin joan zen Cenicerora: geldialdiaren osteko lehen partida zen, kan-txa gomazkoa zen, bidaia bera ere luzea, eta partida jokatzeko ordua ere ez zen ohikoa izan. Hasiera batean, behintzat, tolosarrek garaipena ez zuten erraz lortzeko moduko ikusten. Gauzak horrela, Bide Bide Ibizako jokalariei partidaren sartzea kostatu egin zitzaion; taldekideek hotza eta Ceniceroko taldearen defentsa azpimarratu dituzte, eta honek guztiak norgehiagokako lehenengo laurdena baldintzatu egin zuela nabarmendu dute. Bigarren laurdenean, ordea, tolosarrek egoerari buelta eman zieten, eta atsedendira zazpi puntuko aldearekin

iristea lortu zuten. Hirugarren laurdenean erakutsi zuten Bide Bide Ibizakoek, ordea, euren jokorik onena: «Beste talde bat ikusi genuen». 0-23ko partzialarekin amaitu zuten hirugarren zatia. Amaieran, 30 puntu inguruko abantaila ikusita, tolosarrek lasaitu egin ziren, eta La Alcohola etxeko taldeak markagailuan gora egitea lortu zuten, partida 46-64ko emaitzarekin bukatuz.

Azken garaipen honekin, guzti-

**Hirugarren laurdenean erakutsi zuten jokorik onena, 0-23ko partziala lortuz**

**Sailkapen nagusiko lehen postuan daude, zortzi garaipen eta bi porrotekin**

ra zortzi lortu dituzte Bide Bide Ibizako jokalariek. Galdutako partidak, berriz, bi izan dira. Sailkapen nagusian, lehenengo postuan daude tolosarrek, eta euren atzetik, bigarren eta hirugarren, Goierri-Verkol eta Seky.es taldeak daude hurrenez hurren; biak ala biak zazpi garaipen eta hiru porrot dituzte.

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



Sailkapen nagusiko lehen postuan dago talde tolosarra. HITZA



Finalerdietan partida bat irabazi eta bi galdu ditu Ezkurra-Aizpurua II.a bikoteak. HITZA

## Ezkurak eta Aizpurua II.ak finalerako txartela galdu dute

Erremonteko binakako txapelketako hirugarren finalerdian 31-40 galdu zuten pasa den larunbatean

**Itzea Urkizu** Tolosa

Pasa den larunbatean Galarreta pilotalekuan 31-40 galdu ondoren, Ezkurak eta Aizpurua II.a tolosarrek osatutako bikoteak ez du erremonteko binakako txapelketa ofizialeko finala jokatu.

Partidaren hasieran, dirua ere alde zuten Ezkurak eta Aizpurua II.ak, baina jokoak ez ziren arrazoirik eman apostulariei. 1-0koa lortu zuten Ezkurak eta Aizpurua, baina handik aurrera, beste bikoteak agindu zuten partida osoan zehar. Hamabigarren tantora bitarte markagailua berdinduta joan zen arren, Juaristi eta Lizasok lortutako 0-10eko partzialak norgehiagoka erabat aldatu zuten.

Xanti Aizpurua, kantxatik, era bertsuan ikusi zuen partida:

«Hasieran partida irabazteko aukerak genituela ikusi genuen, nahiko orekatuta joan baitzen partida. Aurreko partidaren baino hobeto hasi ginen, baina bukaera okerragoa izan zen». Aurreko finalaurrekoetan kontrakoa gertatu zitzailela azaldu du tolosarrek: «Ez genuen asmatzen; nik akats gutxi egin nituen arren, pilota eskura jarri nion aurkariari, eta ez nuen minik egin, ezta sakearekin ere. Txapelketa guztian egin ditudan sakerik okerrak egin nituen aurrekoan. Aurkariari, berriz, kontrakoa gertatu zitzaion; Lizasok oso ondo jokatu zuen eta Juaristik ez zuen akatsik egin».

Pilotariak aipatu bezala, 0-10eko partzialetik aurrera, Juaristi eta Lizasok ondo eutsi zioten partidari, eta Ezkurra-Aizpurua II.a 26-33 gerturatu ziren arren, norgehiagoka 31-40 emaitzarekin amaitu zen.

### **Txapelketa «positiboa»**

Xanti Aizpurua pilotariak lehen aldiz jokatu du aurten, erremonteko txapelketa ofiziala. Bere burua ondo ikusi duela nabarmen-

du du: «Joko onean harrapatu nau txapelketak. Lehen bi partidetan oso ondo aritu nintzen, li-gaxkan; txapelketa egin ditudan partida onenak izango dira behar bada». Sentsazio onarekin geratu dela nabarmendu du, txapelketaren berezitasuna gogora ekarri: «Partidak desberdinak dira txapelketan, tentsio handiagoarekin jokatu baitira. Ikusleek ere gehiago animatu dute, eta guztia aldatzen da. Baina oso esperientzia positiboa izan da niretzat».

### **Finalerako apustua**

Zeberio-Ion bikotea eta Juaristi-Lizasok bikotea ariko dira erremonteko binakako txapelketako finalean.

Xanti Aizpurua estu ikusten du partida: «Ez dut uste markagailuan ikaragarriko alderik izango denik». Hala ere, badu pronostikorik txapelketarako: «Zeberio eta Ionen alde egingo nuke, hala ere, Zeberio oso irabazlea baita, eta horrelako partidetan dena ematen baitu. Ez du egun txarrik izaten».



**Hilberriak**

**ESKELAK**

943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



**JOXE MARI IARTZA MITXELENA**

jauna

(Aitziber Iartza gure lankide izandakoaren aita)

*Lilularik ez!  
ez dago itzultzerik  
eguna atean dago  
haize hotza dakar  
ez da izango beste goizerik.*

*Tronpatzerik ez!  
bizitza ez da huskeria,  
edan ase arte beretik  
ez da aski izango  
galtzeaz zaudelarik.*

*Kontsolatzerik ez!  
denbora ez da luzea,  
ustelak lurpera  
bizitza da haundiena  
galtzea, litzake galtzea dena.*



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzalde:** 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### DEIALDIAK

■ **Ibarra.** Urtero bezala, Ibarra kirol elkarteak bigarren sei hila-beteari dagokion batzarra egingo dute ostiralean, hilak 16. 21:00etan hasiko da, eta elkar-terko zuzendaritzak garaiz iristeko eskatu du, eta baita ahalik eta partaidetza handiena izatea.

■ **Villabona.** Oinkari dantza taldearen Dantza Astearren barruan gaur, Oinkarik *Ari du* DVDa aurkeztuko du 19:30ean Gurea zineman. Sarrera doakoa izango da. Biharko ere antolatuta dute ekitaldia: 19:30etik aurrera Gurean, Esne Beltza taldeko Xabi Solano eta Zigor DZ, eta Baga-Biga musika etxeko Ritxi Aizpuru izango dira *Euskal Herriko rock musikaren ikastaroa* izeneko tailerra eskaintzen. Sarrera doan izango da. Ostegunean beriz, doako kontzertua izango da Gurean 19:30ean: Arozentarren ttuntuna. Ostiralean 22:30ean, Gurean Kherau taldearen kontzertua izango da; sarrerak aldeztuak erosi daitezke 5 euroren truke Amasa kafetegian, eta egunean bertan leihatilan 6 euro ordaindu be-

harko dira. Abenduak 17an, larunbatean, 17:00etan Santio jaietan dantza eskolak egindako saioaren inguruko bideo proiektzioa eskainiko dute, eta 22:30ean *Ari du* dantza emanaldia eskainiko dute Olaederra kiroldegian; Amasa kafetegian 6 euroren truke eskuratu daitezke sarrera aurretik, eta egunean bertan leihatilan 8 euroren truke.

■ **Tolosa.** Larramendiko lurperatzearen inguruko batzarra, gaur. Udal gobernua urbanizazioarako bigarren aukera aurkeztuko du 20:00etan, Topic-en.

■ **Alegia.** Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzak abenduaren 17an egingo duten Egu-berrietako kontzerturako entse-gua egingo dute gaur, 21:00etan elizan bertan. Hurrengo entse-gua hilaren 16an, ostiralean, izango da ordu eta leku berean. Txintxarri abesbatzako kideek kantari ohi guztiei egin diete dei entseguetara azaltzeko, izan ere, emanaldiaren bukaeran, urtero bezala, Haendelen *Alleluia* kantatuko dute.

■ **Larraul.** Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kideek azaldu-takoaren arabera, agortu dira

jada igandean, hilak 18, Donostiako Illunben izango den finale-rako Interneten salgai zeuden txartelak. Tolosaldean hala ere, osteguna bitarte herrietako sal-menta puntuetan egongo da sarrera eskuratzeko aukera. Herrietako salmenta puntuetan sarrerarik sobratuko balitz, osti-rala eta larunbatean webgunean jarriko litzukete salgai. Hona-ko tokietan eskuratu daitezke: Alegian Jubilatuen tabernan, Amezketan Sasurain tabernan, Ikaztegiaren Toki Alai tabernan, Tolosan Kantabriko tabernan, eta Villabonan Amasa kafetegian. Saioa 16:30ean hasi-ko da, eta bertan Larraulgo Je-dux Mari Irazurekin batera, Be-riat Gaztelumendi, Iñaki Apala-tegi, Aitor Sarriegi, Unai Agirre, Agin Rezola, Alaia Martin eta Jon Martin izango dira.

■ **Berastegi.** Abenduaren 16, 17 eta 18an egingo duten Elkartasun Azokarako materiala bil-tzen hasi ziren atzo, eta hilaren 15a arte egongo da aukera. Ai-patu egunetan aparkaleku azpi-ko lokalera joan behar da etxe-an ditugun gauzakin, 16:30etik 18:30era.

■ **Ibarra.** Ibarrik Misio Taldeak

abenduaren 17tik 23ra izango den Merkatu Txikirako materia-la bilduko du ostiralera bitarte. 17:00etatik 20:30era joan be-har da.

■ **Tolosa.** Eskuratu daitezke jada, hilaren 17an Tolosako Or-feoiak eskainiko duen Eguberri kontzerturako sarrerak. Kon-tertua Leidorren izango da, eta sarrerak 12 euro balio du. Sarre-ko leihatilan edo Orfeoiaren Na-farroa etorbideko egoitzan es-ukuratu daitezke.

■ **Zizurkil.** Kirol batzordeak antolatuta Zizurkilgo kirolariei omenaldia egingo diete ostira-lean, hilak 16. Herritarrek kirola-riak proposatzeko aukera dute Kirol batzordearekin harremanetan jarrita.

■ **Villabona-Zizurkil.** Katea Etxeak eta Zizurkilgo Gaztezu-lok graffiti ikastaroa antolatuta dute hilaren 27rako, Zizurkil. DBH 2, 3 eta 4ko gazteek bi gaz-telekuetan eman dezakete izena.

■ **Tolosa.** Udalak Gipuzkoatik kanpoko kartzeletan dauden presoeren familiei bidaia gastuei aurre egiteko diru laguntza es-kaerak aurkeztuko epea ireki du.

Hilaren 30ean bukatuko da es-kaerak egiteko epea.

■ **Tolosa.** Tolosan ordezkartza duten eta jarduera Tolosan ber-tan duten Gobernuaz Kanpoko Erakundeek diru laguntzak es-katzeko epea ostegunean, hilak 15, amaituko da, 13:00etan.

■ **Aduna.** Asvineneak VI. Poltsi-ko Antzerki Lehiaketan parte hartzeko izen ematea ireki du. Horretarako deitu 665 73 80 81 telefono zenbakira edo idatzi [poltsiko2012@gmail.com](mailto:poltsiko2012@gmail.com) helbidera.

### ERAKUSKETAK

■ **Alegia.** SOS Razismok *Emakume, etorkina, bizilaguna* erakusketa jarriko du kultur etxean gaur. Hilak 20 arte ikusia ahal izango da.

■ **Tolosa.** Mundu Bat Tolosan izeneko kultur arteko topaketen barruan *Babel: munduko ipui-nak, munduko kulturak* erakus-keta ikusi daiteke egun hauetan haur liburutegian, 17:00etatik 20:00etara.

■ **Tolosa.** Fronton kafetegian Naiara Delgado artistaren lanak ikusi eta erosi daitezke egun hauetan.

## Farmaziak

### GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.  
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●●● **agurrak**

## GONBIDATUTA ZAUDE



**Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean**

liburuaren aurkezpena.

**Abenduaren 14an, asteazkena, 19:00etan Tolosako zerkausian**

Aurkezpenaren amaieran, nahi duenak liburua eskuratu ahal izango du.

Eserlekuak eta berogailua izango dira. Ondoren, lunch-a eskainiko da.

